

SCREAM STREET

BANPIROAREN LETAGINA



TOMMY DONBAVAND

REGINA LARRUCEAREN ITZULPENA

NOR DA NOR...



Luke Watson

Kle Farr



Resus Negatib



Dixon



Ott Handputz jauna

Samuel Harrisalt





Alston eta Bella
Negatibo



Eefa Ondobeti



Doug



Kaskezurtegi doktorea



Nilo Fara



Watson Juan-andreak

Ongi etorri Scream Streetera



Nor bizi da non.....

A Handipartz Jauretxea

B Plaza Nagusia

C Edabeti

D 13. zkia: Lake Watson

E 14. zkia: Resus Negatibo

F 22. zkia: Kleo Farr

G 28. zkia: Doug, Tarf eta Berry

H 39. zkia: Kaskezartegitarak

Lehenengo Atala

Ehiza



Mutikoa hormaren gainetik hilerrira salto batez sartu zen. Oinek irrist egiten zioten belarra bustita zegoelako. Oreka doi-doi mantentzen zuen lurretik hortz ustelduak bezala ateratzen ziren hilarrien artetik korrika.

Mutilaren atzean, izaki bat zutik zegoen lokatzetan, eraldatzen. Piztiak orroa egin zuen atzaparrek larruzko zapata beltzak urratu zizkiotenean, eguzkiaren argi ahulean distiratsu. Geratzen zitzaizkion oinetako-zatiak azazkal horixkekin kendu ondoren, munstroak ehizari ekin zion.

Mutikoak estropezu egin zuen, eta, erortzean, hilarri bat jo zuen buruaz. Distira zuri batek itsututa, zorabiatu egin zen une batez. Bere burua zutitzera behartu eta kopetan zeukan zauria igurtzi zuen. Hatz-muturrak bustitzen zizkion likido gorriari begira zegoela, marmar bat entzun zuen.

Izakia aurrez aurre zeukan, gero eta hurbilago, eta zuzen-zuzen begiratzen zion. Mutikoari telebistako natura-saioak etorri zitzaizkion gogora, saio horietan lehoiek harrapakina zelatatu egiten dutelako. Urrats bat atzerantz egin zuenean, marmol hotzeko hilarri apaindu baten kontra zegoela ohartu zen. Harrapatuta zegoen.

Piztiak oihu egin zuen aurpegia kanporantz ateratzen hasi zitzaionean. Hezurak ezpaletan zatitzen eta azkar eraberritzen zitzaizkion oso modu zaratatsuan, muskuluak ere apurtu eta berehala korapilatzen zitzaizkion; haren buru osoa itxuraldatzen ari zen. Larruazaleko poro guztietatik ile luze eta lodiak atera zitzaizkion.



Gizotsoak, guztiz eraldatuta, muturra zerurantz jaso eta ulu egin zuen.

—E-ez! —esan zuen totelka mutikoak—. Ez minik eman, mesedez! —Ihes egiten saiatu zen, baina gizotsoa gainean izan zuen berehala, atzaparrekin eraso egiteko prest.

Lau marra gorrik mutikoaren alkandora zuri tarratatua busti zuten eta lurrera erori zen berriro. Mutikoak oinekin gorputza atzerantz bultzatu zuen belar lokaztuaren gainean. Munstroa usnaka hasi zen, eta odol-usainak sudurzuloak